

UROLA KOSTAKO EUSKARAREN GINKANA, 1. EDIZIOA

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiaiko DBH 3 eta 4. mailako ikasleentzako (15-16 urteko gazteentzako) lehiaketa, euskaraz eta euskararekin dibertitzeko. Izen-ematea urriaren 3tik 19ra.



Gaur, urriak 3, UROLA KOSTAKO EUSKARAREN GINKANAREN 1. edizioa aurkeztu dugu.

Hainbat erakunderen artean antolatutako ekimena da (Kutxa Ekogunea, Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiaiko udaletako Gaztelekuak eta Euskara Zerbitzuak, Urola Kostako Udal Elkarteak eta Euskaltzaleen Topagunea) helburu argi bat duena, 15-16 urteko gazteak euskararekin eta euskaraz dibertitzea.

Gure bailaran gazteek eskolan euskaraz ikasten dute eta euskarari buruzko gaiak ere lantzen dituzte. Baina, eskola, eskola da. Horrexegatik, euskarari buruz gogoeta eginarazi nahi diegu, baina lehian, jolasean. Bost herrietako gazteak jarri nahi ditugu harremanetan, lehia sanoan, hain naturala zaien hizkuntzari buruz gogoeta egin dezaten, hizkuntzen ekologiaren ikuspegitik.

Euskararen Ginkana

Kutxa Ekoguneak 2011n antolatu zuen lehenengoz Euskal Herriko euskararen ginkana, euskaraz eta euskararekin jolas egiteko ekimena. Aurten, ginkana gure bailarara ekarri nahi izan dugu eta Urola Kostako Euskararen Ginkanaren 1. edizioa antolatu dugu.

Urola Kostako ginkana, 1. edizioa

Kutxa Ekogunearen Euskararen Ginkana euskararekin eta euskaraz dibertitzeko lehiaketa da. Euskararekin, hizkuntza aniztasunarekin eta hizkuntza-ekologiarekin lotutako hainbat proba burutu behar izaten dituzte talde lehiakideek. Urola Kostako Euskararen Ginkana I. edizio honetan mundu mailako begiradatik, Urola Kosta eskualdeko begirada eta praktiketara egingo da salto.

Taldeak, probak eta finala

Ginkana taldeka jokatuko da (4ko taldeak).

4 proba egin beharko dira on-line (astean bat) eta puntu gehien lortzen duten lau taldeek finala jokatu dute Zarautzen, aurrez aurre, abenduaren 2an.

Finala izango da Zarauzko Gaztelekuan, 17:00etan. Sariak: talde finalistetako kide bakoitzak 50,00 euroko erosketa bonoa eskuratuko du, bailarako establezimenduetan erabiltzeko. Talde irabazleko kide bakoitzak, berriz, 100,00 euroko erosketa bono bana.

Finalaren ondoren festa egingo da, bailarako gazteleketako gazteentzat (DJa, musika, askaria...).

Partehartzaileak eta izen-ematea

Izena on-line eman behar da. Ondoko webgunean daude argibideak, oinarriak, izena emateko esteka eta gainerako xehetasun guztiak:

<http://www.euskararenginkana.eus/eu/ginkanak/urola-kostako-euskararen-ginkana-1-edizioa/gi-36/>



Bideoa esteka honetan duzue: https://youtu.be/ABx7yiLdX_U

4 laguneko taldeak osatzeko edo argibideak jasotzeko Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaiako gazteleketara jo dezakezue. **Izen-ematea urriaren 3tik 19ra.**

Antolatzaileak: Kutxa Ekogunea, Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalak (Gaztelekuak eta Euskara Zerbitzuak), Urola Kostako Udal Elkarte eta Euskaltzaleen Topagunea.

Aurkezpenean izan dira: batetik, Itsaso Olaizola Kutxa Ekoguneko ordezkaria; bestetik, bailarako udaletako ordezkariak eta teknikariak (Jose Angel Zaldua Orioko alkatea, Nika Lertxundi Getariako alkatea, Ixidor Larrañaga Zarauzko zinegotzia, Igor Iturain Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria, gazteria teknikariak, gazteleketako hezitzaileak eta euskara teknikariak) eta Orioko gazteak, Ginkanari ekiteko irrikan daudenak.

Antolatzaileak



Orioko Gaztelekua



Getariako Gaztelekua



Aiako Gaztelekua



Zumaiako Gaztelekua



Zarauzko Gaztelekua